

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Euskara ikasteko laguntzearako deialdia, 2018

Udalak, 2018ko otsailaren 14an egindako osoko bilkuran, euskara ikasteko 2018ko laguntzak arautzeko oinarriak onartu zituen.

Bat etorri azaroaren 27ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen lege orokorrak, 9.3 artikuluan, dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 45.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira haiek, guztiek jakin ditzaten.

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da 2017/2018 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta ostatukoak ez), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

BIGARRENA. PERTSONA ONURADUNAK.

Laguntza horiek eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira:

a) Donemiliagako udalerrian erroldaturik egotea, 2017-2018 ikasturtea hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez; baldin eta, ikasturtean zehar, erroldan baja eragiten bada, dirulaguntza erroldaturik emandako denboraren proportzioan emango da.

b) Izena ematean, 16 urtetik gora izatea.

c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten matrikulatuta egotea.

d) Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Ikastaroetarako baino ez da emango dirulaguntza. Ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.

e) Hautatutako ikastaroa, gutxienez, euskalduntze edo alfabetatze urrats baten parekoa izan behar da.

f) Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan izana bermatu behar da edo matrikulatutako ikastaroa gainditu.

HIRUGARRENA. AGIRIAK ETA ESKAERAK.

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Udalak eskueran jarritako eskaera orri ofiziala.

b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.

c) Matrikula ordaindu izanaren frogagiria, bankuak emana.

d) Ikastaroaren ezaugarriak jakinarazten dituen euskaltegiaren agiria: ikasturtearen hasiera eta amaiera, bertaratze datuak, ikastaroa(k) gainditu izana egiaztatzea...

e) Barnetegi batera joanez gero, euskaltegiaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan mantenu, ostatu eta irakaskuntza gastuak banan-banan zehaztuko dira.

- f) Langabezian egonez gero, egoera horretan egon deneko aldia egiaztatzen duen agiria.
- g) Ikasketa ofizialak egiten ibiliz gero, horiek egiten egotearen egiaztatzea.
- h) Lanaldi partzialeko enplegatua izanez gero eta dedikazioa ehuneko 33 baino gutxiago izanez gero, lan bizitzaren egiaztatzea.
- i) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa edo laguntza eskatu izana egiaztatzen duen agiria.

LAUGARRENA. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETATOKIA.

a) Eskabideak Donemiliagako Udalaren bulegoetan jaso daitezkeen inprimakietan egin behar dira; haiek eta eskatzen diren gainerako agiriak Donemiliagako udaletxean aurkeztu beharko dira, 2018ko urriaren 31ra arte.

BOSGARRENA. AURREKONTU KREDITUA ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2018ko aurrekontu orokorreko 335 48200 aplikazioaren aurrekontu kredituari egotziko zaizkio, zeina 2.000,00 euroz hornituta baitago. Handitu egin ahal izango da aurrekontu aplikazioa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ondokoen arabera zehaztuko da, eta betiere kontuan izango da aurrekontu kredituaren muga.

a) Eskatzailea langabezian badago 2017-2018 ikasturte osoan, laguntzaren zenbatekoa matrikula osoa izango da (gehienez 600 euro eskatzaileko eta urteko). Langabetu partzialen kasuan, matrikula osoa bakarrik aplikatuko da baldin eta eskatzailea ikasturteak irauten duen aldiaren ehuneko 60 baino denbora gehiagoz badago langabezian. Horiek langabetutzat hartuko dira ikasturteko gehieneko dirulaguntza aplikatzeko garaian, eta 600 euroko gehieneko dirulaguntza jaso ahal izango dute. Gainerako kasuetan, matrikularen ehuneko 75eko dirulaguntza aplikatuko da, 450 euroko gehieneko mugarekin.

b) Eskatzailea ikasketa ofizialak egiten badago 2017-2018 ikasturte osoan, laguntzaren zenbatekoa matrikula osoa izango da (gehienez 600 euro eskatzaileko eta urteko).

c) Eskatzailea ez badago langabezian, laguntzaren zenbatekoa matrikularen ehuneko 75 izango da (gehienez 450 euro eskatzaileko eta urteko).

d) Lanaldi partzialeko enplegatuak, lanaldia xedatutakoaren (hau da, astean 40 ordu) ehuneko 40 baino laburragoa badute, langabetutzat hartuko dira ondorio guztietarako. Gainerako kasuetan, matrikularen ehuneko 75eko dirulaguntza aplikatuko da, 450 euroko gehieneko mugarekin.

SEIGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUEKIN.

Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituzten beste batzuekin, baldin eta dirulaguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada.

Euskara ikasteko bestelako laguntza edo dirulaguntzak eskatzeko aukera izanez gero (Merkataritza Ganbera...), eskatu egin behar dira.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

ZAZPIGARRENA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

- Emandako laguntza onartzea eta eskatutako xederako erabiltzea.
- Eskatutako ikastaroa edo ikastaroak egin izana egiaztatzea, bai eta laguntza jasotzeko ezarri diren betekizunak eta baldintzak bete izana ere.

- Laguntzan eragina duten aldakuntza edo aldaketa guztiak idatziz jakinaraztea.
- Donemiliagako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudunek eskatzen dituzten argibide guztiak eman behar dituzte.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak.

ZORTZIGARRENA. ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA.

Euskara zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak, datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzearen, horien indarrez egin behar baita ebazpen proposamena.

Donemiliagako Udaleko alkateak du dirulaguntzak emateko eskumena, frogagiriak aurkeztu ondoren; gero ordainduko da onartutako dirulaguntza osoa.

Eskaeren ebazpena gehienez ere hiru hilabeteren barruan emango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

Ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtsio jar daitezkeen haren aurka. Ebazpena urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 43. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

BEDERATZIGARRENA. LAGUNTZA GALTZEA ETA DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.

Onuradunek laguntza osoa edo zati bat gal dezakete, aurrez espediente irekita, kasu hauetan:

- Daturen bat faltsutu bada eskaeran edota eskatutako agirietan.
- Laguntza erabili ez bada hura eman zen xede eta jardueretarako.
- Ezarritako betebeharren bat bete ez bada.
- Dirulaguntzen Udal Ordenantzako 19. artikuluan ezarritako kasuetan.

Emandako laguntza itzultzeko prozedura Donemiliagako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantzaren araututakoaren arabera izango da.

HAMARGARRENA. ERREKURTSOAK.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsioa deialdi hau onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren ebazpen espres edo presuntzioskoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsio ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntzioskoa bada, sei hilabeteko epean, presuntziosko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

HAMAİKAGARRENA. BESTE XEDAPEN BATZUK.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du. Aplikatu beharreko oinarriko arauak hauek dira: Dirulaguntzen udal Ordenantza; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzen duena.

Erdoña, 2018ko martxoaren 12a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO

AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)



DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.donemiliaga.org

**EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA/
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA APRENDIZAJE DE EUSKERA
CURSO 2017/2018 IKASTURTEA
ESKAERA ORRIA
HOJA DE SOLICITUD**

ESKATZAILEAREN DATUAK
DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

IZENA / NOMBRE		NAN / DNI
1. ABIZENA / 1ER. APELLIDO		
2. ABIZENA / 2º. APELLIDO		
Kalea / Calle		Zk / N ^a Solairua / Piso
Herria/ Pueblo		
Posta-Kodea /Código Postal	Udalerría / Municipio	Lurraldea / Provincia
e-posta / correo electrónico	Telefono zk. / N ^a Teléfono	Sakelakoaren zk. / N ^o móvil
Kontu zenbakia / Número de cuenta bancaria		
Baimena ematen dut nire datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informaziorako soilik <input type="checkbox"/>		
BAI/SI Autorizo que mis datos formen parte de la base de datos del Ayuntamiento únicamente para efectos Informativos municipales <input type="checkbox"/>		
EZ/NO		

DEKARATZEN DUT / DECLARA

Betebehar fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela / Estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales y/o tributarias.

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

- Eskatzailearen NANaren kopia /Fotocopia del DNI de la persona solicitante.
- Matrikula ordaindu izana egiaztatzen duen jatorrizko banku-agiria, edo dagokion kasuan, ordainagiriaren kopia konpultsatua. (ordainduta dagoela adierazi)/Justificante bancario original de pago de matricula por la realización de la actividad, o en su defecto, copia compulsada del recibo correspondiente (deberá expresar que ha sido abonado).
- Ikastaroa eskaintzen duen zentroaren jatorrizko egiaztagiria honako informazioarekin: Hasiera eta amaiera data, emandako eta hartutako orduak guztira,

AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)



DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.donemiliaga.org

aprobetxamendua, kostua... /Certificado original del centro en el que se realiza el curso que deberá indicar las siguientes características: Fecha de inicio y fin de la actividad, número total de horas impartidas y asistidas y coste de la actividad , aprovechamiento....

Langabezian egonez gero edo ikaslea izanez gero, hura ziurtatzen duen agiria / En caso de estar en situación de desempleo o ser estudiante documento que lo certifique

Enplegatua/Langabetua izanez gero: bizitza laborala / En caso de ser empleado/da/desempleado/a: vida laboral.

Beste diru-laguntzarik jasoko den edo ez adierazten duen zinpeko aitormena, eta dagokion kasuan, eskaeraren kopia konpultsatua. Eskaerak erantzuna jaso badu, ebazpenaren kopia konpultsatua onartutako zenbatekoa edo ukatua izan dela aipatuz. Dagokion kasuan, ebazpenaren zain dagoela aipatu / Declaración jurada sobre la existencia o no de otras peticiones de subvención y, en su caso, fotocopia compulsada de la petición. Si la petición ha recibido respuesta, fotocopia compulsada de la resolución indicando la cantidad concedida o si ha sido denegada. Indicar, en su caso, si se está a la espera de resolución

Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez edukitzearen erantzukizuneko adierazpena, eta horretarako legezko inolako debekurik ez izatearena, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13 artikulua zehaztu bezala. Declaración de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario/a, señaladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones relativas a la persona solicitante y beneficiaria de la subvención.

Donemiliagako Udaleko errolda-agiria, onuradunaren antzinakotasuna adierazita / Certificado de empadronamiento del municipio de San Millán donde conste la antigüedad de la persona beneficiaria

Zinpeko aitormena / Declaración jurada

.....Jaun/andreak,NAN zenbakiduna
AITORTZEN DU:

Heburu bererako ez duela inolako diru-laguntzarik jaso.

Helburu bererako diru-laguntza jaso edo eskatu duela

Nori eskatu?

Emandako zenbatekoa:

D/Dña....., con DNI, DECLARA:

Que no ha recibido ninguna otra subvención para este mismo fin.

Que ha recibido o solicitado otra subvención para tal fin

¿ A quien se ha solicitado?

Cantidad concedida:

Erdonanan, 201__koaren(e)an

Sinadura /firma

2

**AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN**
(ALAVA)



DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.donemiliaga.org

ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE

ESTA SOLICITUD SE PUEDE ENTREGAR EN:

Donemiliagako Udala / Ayuntamiento de San Millán
Andia Kalea, 8
01208 – Ordoñana (Araba)
www.donemiliaga.org
Ordutegia / Horario

Aurrez aurre: Udalean
Andia Kalea, 8 – Ordoñana
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara

Postaz: Posta ziurtatu irekiaren bitartez posta bulegoetan

Helbide elektronikoa:
asanmillan.general@ayto.araba.eus

Informazio gehiagorako, deitu: 945 300472

Presencialmente: En el Ayuntamiento
Calle Andia, 8 – Ordoñana
Horario de Lunes a Viernes de 9:00 a 14:00.

Por correo postal: En las oficinas de correos
mediante correo certificado abierto.

Correo electrónico:
asanmillan.general@ayto.araba.eus

Para más información llamar al 945 300472

DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Donemiliagako Udalak jakinarazten dizu, inprimaki honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula.

Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horren xedea eta baita Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren historia, estatistika edo zientzia xedeetarako erabiltzeko aukerarekin, beti ere, ezarri beharreko lege gintza betez.

Herri administrazioen eskura dauden xedapen ezargarrietan jarritako legezko epeetan gordeko dira zure datuak, horien tratamendutik sor daitezkeen balizko erantzukizunak kontuan hartzeko, beti ere, datuok sekretupean eta gordeta izateko betebeharra betez. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, Honako helbide honetara jo dezakezu: Donemiliagako Udala, Andia Kalea nº 8 – 01208 – Ordoñana (Araba)

PROTECCIÓN DE DATOS

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Ayuntamiento de San Millán le informa que sus datos personales, obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado.

La finalidad del fichero es la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias y la adecuada prestación de los servicios que ofrece el Ayuntamiento, sin perjuicio de su posible tratamiento posterior para fines históricos, estadísticos o científicos, de acuerdo a la legislación aplicable.

Sus datos serán conservados, durante los plazos legalmente previstos en las disposiciones aplicables, a disposición de las Administraciones Públicas, para la atención de las posibles responsabilidades nacidas del tratamiento y siempre bajo el deber de secreto y reserva. Si lo desea, puede ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos por la ley, ante el Ayuntamiento de San Millán, c/ Andia, nº 8 – 01208 Ordoñana (Álava).